



Drogak + Kulturak = Arrisku-gutxitzea

Askagintzatik hamaseigarren Bizirik Eguna antolatu berri dugu, Euskal Herri mailan Droga-mendekotasunen Prebentzioaren aldeko eguna.

Herri erakunde gisa badugu abiapuntu bat (drogak egon dira, daude eta egonon dira), helmuga ere finkaturik daukagu (drogak dauden gizarte honetan libre bizitzen ikastea, droga-mendekotasunik gabe) eta aukera bat ere egina dugu (debekuaren eta banalizazioaren bideen porrotaren aurrez aurre normalizazioa).

Hamaika aldiz entzun eta irakurri badugu ere, drogak ez dira ez "onak", ez "txarrak". Drogak plazerra lortzeko, terapiarako, sendatzeko, gaixotasun bati aurre egiteko, mina arintzeko... erabili daitezke, baina baita egonezina, mina, antsietatea, bihozmina, frustrazioa... arintzen laguntzeko ere.

Hainbat faktore direla medio droga kontsumoak positiboak edo negatiboak izan daitezke. Horrela hartzen dugun droga mota, kalitatea, kantitatea, dosia, hartzen den maiztasuna, adina, droga kontsumoari jartzen zaizkion itxaropenak, nortasuna, kontsumitzen den tokia, bertan dagoen giroa, kontsumitzailea bizi duen testuinguruaren ezaugarriak eta abar luze batek esango digu droga kontsumo hori positiboa suertatzen den ala ez. Drogen kontsumoa bere horretan ez du zergatik txarra izan behar. Gainditzen joan beharko ginateke "droga-txarraren" mitoa, gure barruan dagoen mamu zurrupatzailea besterik ez baita eta honek oztopatu egiten digu gaia egiazki eta errealki adarretik heltzen.

Gainera historiari beginatu bat eta munduari beste buelta bat emango bagenio ohartuko ginateke garai eta zibilizazio ezberdinetan modu batera edo bestera beti hartu izan direla drogak. Toki batzuetan zenbait droga kontsumitzea sozialki ontzat ematen da, beste batzuk onartu egiten dira eta beste asko berriz errefusatuak, debekatuak eta zigortuak daude. Horregatik interesgarria litzateke droga mota ezberdinen kontsumoak zein testuinguru kulturaletan egiten diren ezagutzea.



Kontsumismoan oinarritutako gizarte honek eta arriskuz beteriko testuinguru honek droga kontsumoetan negatiboki eragiten dutela ukazina da. Horregatik Askagintzak proposatzen duen bidea egun egiten diren drogen kontsumoak arrazionalizatzen joatea eta aldi berean kontsumo horiek sortzen dituzten efektuetaz jabetzen joatea eta norbera egiten duenaren erantzule egitea da.

Horretarako ezinbestekoa izango da adin txikikoei eta norberaren kontsumoak besteei sortu diezaiekeen kalteak ekiditeko neurriak jartzea. Dena den ezin dugu ahaztu "zero arriskua" lortu ezina izateaz gain, sortuko dituen "kostuak infinituak" direla, azken batean kimera hutsa. Gainera arriskuak gutxitzen saiatu gaitzke, baina erabakiak hartzeko askatasunaren printzipioa hor dagoela inoiz ahantzi gabe.

Egun beste arazo bat ere badugu, droga kontsumitzeko moduan aldaketak ematen ari direla. Horren adibide garbia alkohola da, garai bateko mediterranear kontsumoa (otorduetan, lagunartean, astean zehar eta garai bateko asteburu motzean...) galtzen ari da eta indarra hartzen ari da edateko modu anglosaxoia (kantitate handia, toki berean eta denbora tarte motzean). Haxixarekin beste horrenbeste gertatzen ari da, "petak" zigarroak bailitzan kontsumitzen dira, ekialdeko kulturaren erretzen zen modua galduz eta yankien ohitura hartuz. Hau guztia, inposatzen ari den globalizazio prozesuaren ondorioz ematen ari da, drogak kontsumitzeko moduan ere homogenizazioa eta gizatasun eza ezinbestekoa delarik.

SAGARDOA DROGA bat da, graduazio gutxiko edari alkoholoduna. Orain arte esandako guztiaren adibide garbia izan daiteke droga hau. Droga honen kontsumoa ez da berria, beti hartu izan da inguru pribatuan (etxean) eta publikoan (tabernetan, txoznetan, merenderoetan, sagardotegietan). Sargardoa hartzeko modua kulturalki egoki "idatzirik" egon da, hau da, trago txikiak, kupeletik zuzenean, lagunartean, giro lasaian, bakailaoa, tortilla, txuleta edota gazta hartzidura prozesuan dagoen droga honekin blaiturik, guztion artean erlazionatuz, bertso batzuk botaz edota entzunez, kantatuz eta tokian tokiko beste hainbat ezaugarri gehiagorekin.



Esandakoak nostalgia kutsua badu ere, duela urte gutxi arte "sagardoaren lurraldeetan" erreala zen eta oraindik orain astean zehar ematen da zenbait tokietan. Kontsumo kulturala izanagatik ez gaitu gehiegi edateak dituen ondorioez libratzen.

Droga honen kontsumoan eman izan den testuinguru kulturalaren ezaugarriak galtzen ari direla ikusi besterik ez dago, adibide nabarmenenak ondokoak izan daitezkeelarik, sagardotegietara beste edari alkoholdu batzuk trago egin eta gero iristen gara, maiz nahasketa irrazionalak egin eta gero, bat-batean sagardo kupela edateko edota edalontzia bete bete eginda tragatzeko prest gaude, kanila irekita uztea edota edalontziak "nahita" puskatzea ez da harritzekoa eta koma etilikoa asteburuan jan beharreko ogia bihurtzen dugu. Gainera honek guztiak badu bere "justifikazio ekonomikoa", edan gutxi edo edan asko berdin ordaindu behar dugu eta...

Gure ustez droga kontsumoetan erreferente kultural horien galtzeak arriskuen eta kalteen gehitzea sortzen ari da, baita kontsumoekin zerikusia duten patologien eta arazozen ugaltzea ere.

Proposatzen ditugun irizpideekin hasteko sagardoa abiapuntua izan liteke. Horrela plazer iturri izan litekeen droga hau modu arrazionalen kontsumitzeko, bere ondorioez erantzule egiteko eta sagardoaren ekoizpena, salmenta eta kontsumoa erregulatzeko irizpideak finkatzeari ekingo genioke. Baina ez genuke apologia egiterik nahi, sagardoa nagusiki kontsumitzen duten jende gehiegi baitago alkoholizatua. Axolagabe ere ez dugu aritu nahi, ohituraren eta usadioaren izenean haurrak sagardoaren mundua dastatzen uzten diegunean bezala.

Kultura irekia eta demokratikoak berarekin eraman behar du eredu erreferentzial positiboen eskaintza. Beste kulturak gurea aberasteko egokiak dira, baina horrek ez du esan nahi gurea baztertu edota galzorian utzi behar dugunik, norberaren kulturak identitatea eta bertako kide sentitzeko ahalmena emateko ezinbestekoa baitu. Hau horrela izanik, gureak ez diren drogen erabilpen kulturalak errespetatuz joan beharko ginateke. Honen adibide garbia cannabisaren deribatuak dira, jatorrian kontsumitzen den modua behatzea, aztertzea eta ikastea ez litzaiguke batere gaizki etorriko eta.



Askagintza

Aristizabal 9, behea 20120 HERNANI Tfnoa: 943 33.60.80 Faxe 943 33.63.27
askagintza@euskalnet.net www.askagintza.com

Gure kultura babestea eta defendatzea eta beste kulturak errespetatzea ezinbestekoa dugu globalizazioak irensterik ez badugu nahi. Gainera aukera bat egin beharko genuke askatasunean oinarritutako harreman gizatiarragoen eta naturalagoen alde eta eskubide hiritar demokratikoen alde.

Herri mailako irakurketan dihardugu. Erabakiak hartzeko gaitasuna duten gizon-emakumeak, KOMUNITATEA koskortzeko eta eraikitzeko ahaleginean dabiltzanak, ziurtasuna ematen digute, etorkizunari begira benetako SUBIROTASUNA lortzeko tresna baita hau.

Txus Congil ASKAGINTZA
Hernanin, 2004ko Azaroaren 14an